

Kateriñe



Varios autores

Ilustrador/a: Iñigo Sarasola Sarasola

Colección: Komikiak, 5

Formato: 230 x 310 mm

Páginas: 120

Encuadernación: Cartoné

Fecha de publicación en papel: 06-09-2025

ISBN de la edición en papel: 978-84-1093-064-3

Materia: Literatura para adultos

P.V.P

25,50 €



Espainiako Gerra Zibilak eragindako suntsipenaren lekuko izan zen Kateriñe Letamendi tolosarra. Tropa frankisten bonbetatik eta mehatxuetatik ihes egin behar izan zuen. Kaosaren erdian, egunerokoa izan zuen babesleku; sufrimenduz eta oroitzapenez betetako bitakora bat. Komiki hau haren ihesaldiaren eta biziraupenaren testigantza da. Kateriñek eskuizkribu batean aspaldian bildutakoak eskaintzen dizkigu orain haren bilobak, Maitena Illarramendik, liburu honetan: Illarramendik egokitu du testua, Iñigo Sarasolak eman dizkie forma eta kolorea protagonistaren oroitzapenei, eta, bion artean, kontakizun sakon hunkigarria sortu digute.

Hil aurretik, Kateriñek hauxe idatzi zuen: «Nire errautsek hegan egitea nahi dut, gure familiaren sustraiak dauden lurreko basoetan. Zorte apur batekin, zuhaitz bihurtuko naiz eta txoriek nire adarren gainean abestuko dute. Eta leku horretatik zainduko zaituztet, kandela piztuta, beti egin dudana bezala».

Autores

Iñigo Sarasola Sarasola

IÑIGO SARASOLA SARASOLA, "MONTI". Beasainen jaio zen, 1964an. Diseinatzaile hasi zen lanean. 1987an, arte zuzendari gisa lan egin zuen Gasteizen. 1992an, publizitatearen munduaz nekatuta, *freelance* hasi zen; liburuak ilustratu ditu, baina baita disko azalak, kamisetak, bideoklipak, eta aldizkarietarako komikiak ere. Lan horretan dihardu gaur gaurkoz.

Maitena Illarramendi

MAITENA ILLARRAMENDI UNANUE. Donostian jaio zen, 1976an. New Yorken lau urte igaro zituen; Manhattango New School Universityn ikasi zuen. Ondoren, lau urte eman zituen Erdialdeko Amerikan; hain zuzen ere, Costa Rican ikus-entzunezko enpresa txiki bat sortu zuen: *Purita Dinamita*. Ondoren, Euskal Herrira itzuli eta Irakasle Eskolan Atzerriko Hizkuntzetan espezializatu zen. *Gatz Basatia* izeneko proiektua abiarazi zuen: literatura, antzerkia, ikus-entzunezkoak, musika eta txotxongiloak uztartzen zituen. Euskal Herriko plaza, antzoki eta natura-txoko aunitzetan aritu zen, baita Espainian eta Holandan ere. Terapia Transpersonaleko Tekniketako Master bat egin zuen eta Neuropsikologian eta Hezkuntzan Maisutza osatu zuen. Gaur egun, eskola publiko bateko zuzendaria da.